

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIATZATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak, abenduaren 12an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

“4.2.-Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen 2024ko deialdira aurkeztutako eskaeren zuriketa onartzea.

Alkatearen 2024ko abenduaren 12ko proposamenak honela dio:

“ Unai Kortabarria Errastik (Oñatiko Sozioekonomia teknikariak eta batzordeko idazkariak) abenduak 12an egindako txostenean (CSV zkia: ESKU9fe994f9-959b-44fd-b66f-95c0a2c36bf8) honako PROPOSAMENA egin zuela:

Espediente zk.:..... 2024ZDKO0018
Interesduna: OÑATIKO UDALA
.....
Gaia: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzak
.....
Sarrera erregistroa: 5135, 5478, 5505

Jarraian azaltzen dira gai honi lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak, 2022ko apirilaren 11n, 69. Zb.)

Bigarrena.- Oñatiko Udalak, 2024ko martxoaren 14an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, onartu zuen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia. (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2024ko apirilaren 8an, 67. Zb.)

Hirugarrena.- Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia kontuan izanda 5135, 5478 eta 5505 erregistro zenbakia duten zuriketak aztertu dira.

Gertakarien balorazioa.

Lehenengoa.- Aurkeztutako zuriketak aztertu ostean, jarraian zerrendatzen diren eskatzaileei negozio-lokalen alokairuentzako dirulaguntza hauek ordaintzea proposatzen da:

ONARTUTAKO ZURIKETAK

ESKATZAILEA	IFZ	ESP. ZK.	
MARZENA MARIA WALERJANCZYK	***1656**	2024ZDKO0018/2793	2.500€
LEIRE IGARTUA GONZALEZ	***4536**	2024ZDKO0018/3213	2.500€

Bigarrena.- Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela 1 1000.480.241.01.01 2024 (389) diru atalean.

Horrenbestez, gertakari hauen azalpenak Sozioekonomia batzordean eman ostean, ondorengo **erabaki proposamena** egiten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari:

Lehenengoa.- Goian zerrendatutako Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza zuriketak onartzea.

Bigarrena.- Jarraian zerrendatzen diren onuradunei ordainketa hauek egitea 1.1000.480.241.01.01 2024 (389) diru atalaren kargura.

ESKATZAILEA	IFZ	DIRULAGUNTZA
MARZENA MARIA WALERJANCZYK	***1656**	2.500€
LEIRE IGARTUA GONZALEZ	***4536**	2.500€

Hirugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkaturko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://oñati.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena.- Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bosgarrena.- Erabaki hau eta Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.”

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.“

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZDKO0018-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)